

**ALDERDIEN MAHAIA.** Alderdi Politikoen Legearen inguruko desadostasunak agerian geratu ziren atzoko bileran

# Eudeleko eta Arkauteko akordioak bere egin ditu Alderdien Mahaiak

PPk ez beste alderdiek adostu dute Arkauteko testua Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzea



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Enrique Villar Espainiako Gobernaren ordezkarria EAEn eta Jaime Mayor Oreja PPko buruzagia, Lehendakartzara sartzen, atzo.

## ESANAK

**JUAN JOSE IBARRETXE**  
(EAEko lehendakaria)

«PPren jarrera autoritarioa da, eta konfrontazioa euren proiektu politikoaren barne dago»

**XABIER ARZALLUZ**  
(EAJko EBBko presidentea)

«PPk eta PSE-EEK arrazoirik ez dutela ikusten bada, herri honek sufrituko du»

**JAIME MAYOR OREJA**  
(PPko bozeramailea)

«Terrorismoari aurre egiteko ikuspuntu kontrajarriak ditugu»

**PATXI LOPEZ**  
(PSE-EEKo idazkari nagusia)

«Bilera positiboa izan da, elkar ulertzeko bidean jarraitzen dugulako»

## Edurne Begiristain | GASTEIZ

Eudelen eta EAEko Segurtasun Batzordeko akordioaren inguruko hainbat adostasun lortu zituen atzo Alderdien Mahaiak. Lehendakaritzan egindako bileran arratsaldeko ordu bietan hasi zen, eta hiru ordu iraun zuen.

Bilera bukatuta, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak bilkuraren balorazio «positiboa» egin zuen, eta «pozik» azaldu zen «onuragarriak» diren akordioak erdietsi dituztelako. Hiru izan dira Alderdien Mahaiak adostutako gaiak. Batetik, Eudeleko akordioa bere

egitea erabaki dute EAJk, EAK, EB-IUk, PPk eta PSE-EEK. Gainera, EAEko udalei animoak eman dizkiete ekimenaren eztabaidarekin jarrai dezaten eta aniztasun foroak egin ditzaten. Horretaz gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkate eta zinegotziei «elkartasuna» adieraztea adostu dute.

Arkauteko Mahaian lortutako akordioaren gainean, berriz, ez da erabateko adostasuna erdietsi. PPk ez beste alderdiek adostu dute EAEko Segurtasun Batzordeko testua legez besteko proposamen gisa Eusko Legebiltzarrean eztabaidatua izatea,

Eusko Jaurlaritzak eta Madrilgo gobernuak hainbat neurri martxan jarri ahal izateko. Gainera, «jazarpen biolentziaren» aurka programa bat egitea ere hitzartu dute. Azkenik, «bakearen kultura» bultzatzeko ekimenak abian jarriko dituzte Jaurlaritzaren Gazte Planaren baitan. Modu honetan, «indarkeriaren kulturarekin» bukatzeko PSE-EEK proposatutako foroa bertan islatuta egongo da.

### Alderdien arteko zatiketa

Akordioak lortu arren, argi geratu zen, beste behin ere, Batasunaren ilegalizazioaren inguru-

ruan eta euskal gatazka konpontzeko neurrien aurrean batzuen eta besteen artean dauden ezberdintasunak. Hala iritzi zioten, bederen, Ibarretxe lehendakariak berak eta Xabier Arzalluzek (EAJ), Jaime Mayor Orejak (PP), Begoña Erraztik (EA) eta Javier Madrazok (EB-IU), bileraren ondotik egindako adierazpenetan.

Ibarretxek onartu zuen bileran «hodei beltzak» egon zirela. PPri zuzendu zizkion kritika gehienak, Arkauteko dokumentua ez onartzeagatik batetik, eta Batasunaren ilegalizazioa defendatzeagatik, bestetik. PPren

jarrera «autoritarioa» dela iritzi zion, eta adierazi zuen «konfrontazioa» euren proiektu politikoaren barruan dagoela.

Xabier Arzalluz EBBko presidentearen aburuz, Batasunaren ilegalizazioaren gain denborarekin ikusten bada PPk eta PSEk arrazoirik ez dutela, «ekidin zitekeen sufrimendua izango du herri honek». Jaime Mayor Oreja PPko presidentearen ustez, bileran argi geratu da «terrorismoari aurre egiteko bi ikuspuntu kontrajarriak» daukela. Haren aburuz, gai horretan Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen neurriek «ez dute zerikusirik errealitatearekin».

PSE-EEKo idazkari nagusi Patxi Lopezek «positibotzat» jo zuen bilera, «elkar ulertzeko bidean jarraitzen dugulako». Lopezek jakinarazi zuen PP ez beste alderdi eta erakundeetako ordezkariek bat etorri direla Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuko presidenteari Alderdien Mahaian islatutako «elkarrizketaren adibidea» helarazteko. Bestalde, EAKo presidente Begoña Erraztik PPren jarrera «alderdikoia» salatu zuen. Ezker Batuko koordinatzaile nagusi Javier Madrazoren ustetan, berriz, atzoko bilerak agerian utzi du «alderdien arteko banaketa».

## BATASUNA

### Ez zuten sartzerik izan

Batasuneko ordezkariek ezin izan zuten Lehendakaritzako bileran egon, atariko Ertzainek eraikinera sartzea eragotzi baitzieten. Antton Morcillo eta Raquel Peña Batasuneko eledunak ordu biak hamar gutxiagotan agertu ziren Lehendakaritzan, eta Arnaldo Otegi bileran egon zedin baimena eskatu zioten ateko ertzainari. Ertzaintzak jakinarazi zien Ibarretxe lehendakariaren aginduz ezin ziotela pasatzen utzi. Batasuneko kideek, orduan, ezker abertzalearen bake eta aldaketa politi-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Juanjoxe Petrikorena, Rakele Peña eta Arnaldo Otegi, Lehendakaritzako atarian.

korako proposamenak eman zizkieten ertzainari, bilerako partaideei eman ziezazkieten, eta baita Ibarretxeri zuzendutako gutun bat ere.

Horren ostean, Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea agertu zen, eta Ibarretxek ezartzen dien «apartheid politikoa» salatu zuen. Otegi gogora ekarri zuen lehendakariak inbestidura saioan adierazi zuela «elkarrizketa» nagusi izango zela alderdi politiko guztien artean. Ildo horretan kritikatu zuen atzoko bileran «150.000 euskal herritarri muzin eta barre» egin zirela. Otegi gaineratu zuen gizarteak «soluziobideak» eskatzen dituela.